

# Parkean bada beti zertan jolastu





Argitaraldia: 1.a 2007ko irailean  
Ale-kopurua: 1.000 ale  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Industria, Merkataritza eta Turismo Salla  
Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Egilea: Ortizadar, S.L.  
Aurreinprimaketa: Argia Servicios Gráficos, S. L.  
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.  
ISBN: 978-84-457-2607-5  
Lege-gordailua: VI-392/07






Eskolako sirena jotzen hasi da berriro, arratsaldero bezala. Baina gaur ez da berdin. Asteburua dator, eta Tontxu eta adiskideak apurtxo bat gehiago egon ahal izango dira parkean, bihar eskolarik ez dago eta.



Gaur aitaxo etorri zajo bila, eta askariaz gain, talderik kutunenaren baloia eta monopatina ere ekarri dizkio.




Parkera iritsitakoan, Pablarekin eta Anerekin elkartu da Tontxu. Anek bizikleta ekarri du; kasko eta guzti, jakina. Pablok, berriz,  an bila aritu ondoren, karta batzuk atera ditu, familiak osatzen jolasteko horietakoak. Zineman ikusi duen azken filmarenak dira, eta amonak oparitu zizkion, mandatuetao poltsak eramaten laguntzeagatik.



Askaltzen bukatutakoan, Tontxuk monopatina hartu du, eta badoa parkea zeharkatzen duen bidexka batetik behera jaistera.



“Ez al zaizu zerbait ahaztu?” ohartarazi du aitak.

“Bai, egia da.  a eta belauetakoak ahaztu zaizkit. Eta zuk ere, Ane, erabili beharko zenituzke, bizikleta hartutakoan. Horrela, eroriz gero, ez dugu minik hartuko”, esan dio Tontxuk.

Pablo ogitartekoa jaten ari da, eta begira dute. Bukatutakoan, monopatina eskatuko dio Tontxuri. Biek ondo dakite zein garrantzitsua den jostailuak lagunei uztea. Gurasoek sarri-sarri gogorarazten diete.




Tontxuk, alabaina, Pablori aurea hartu eta bidexkatik behera  rekin txandaka jaistera proposatu die bi adiskideei.






Bidearen goi-goian daudenean, zerbaitek atentzia eman die parkeko bazter batean haur-mordoa dago, denak elkarren gainean pilatuta.

“Zeri begira ote daude?”, galdetu du Anek. “Goazen behera, zer gertatzen den ikustera”.

Martin da. Urtebetetze-egunean jasotako oparia ekarri du: 1 formulako auto bat, zoragarria, itzela.  a da, aleroi handi handiak ditu eta sekulako zarata ateratzen du. Ibili baino gehiago, hegan egiten du, eta argiak pizten zaizkio, gainera.

Arazotxo bat dago, ordea. Martin gehienetan bakar-bakarrik ibiltzen da parkean, eta ez dio inori uzten bere  indartsuarekin jolasten. Ilea azenarioak bezain gorria duen mutiko





bat saiatu da horretan, baita bi motots eta aurpegia bat bailitzan margotuta duen neskatxa bat ere, baina ez batak ez besteak ez dute lortu. Horregatik, haur guztiek alde egin dute, haserre, nor bere kasa jolastera: zabuan, txirristan, hondar-zuban...; eta Tontxu, Anerekin eta Pablorekin batera, monopatinean eta bizikletan ibiltzera joan dira.

Denbora-puska batean jolasean aritu ondoren, apurtxo batez atsedean hartzeko gelditzea proposatu du Pablok, eta parkeko eserleku batean eseri dira hirurak, kartetan jokatzeko. Egia esan, gustura onartu dute adiskideek proposamena, gora eta behera hainbeste ibili ondoren leher eginda daude-eta.



Pablok a bizkar-zorroan sartu eta kartak atera ditu. Hasi aurretik, baina, jokoaren arauak jakin behar, eta Aneri eta Tontxuri azaltzen hasi da.

“Adi. Joko hau oso erraza da. Kartak familiatan elkartzea








da kontua.  bakoitza 4 kartak osatzen dute, eta familia gehien lortzen duenak irabazten du”, esan die Pablok.


Tontxuren aita hurrei begira dago, eta ea bera ere jolas daitekeen galdetu die. Hirurek baietz esan diote buruaz, poz-pozik.


Tontxuk oso gogoko du aitatxorekin jolas egitea. Irabazi edo galdu, irribarre egiten du beti. “Ondo pasatzea da garrantzitsua”; hori esan ohi du. Eta Tontxuri batzuetan amorrua ematen dion arren, badaki arrazoi duela.

Hasi dira jokoan. Apurka-apurka, parte-hartzaileak familia osatuz doaz. Etxe-abereen familia (txakur bat,  bat, txori bat eta hamster bat), basabereen familia (lehoi bat, tigre bat, marrazo bat eta  bat) eta gainerakoak.




Karta-jokoa bukatu da. Pablok lortu du familia gehien.  
Gainerakoek ez dute irabazi, baina helduek esan ohi duten  
bezala, “ederki ibili gara”.

Bitartean, hor dabil Martin, lasterketa-autoarekin gora eta  
behera, parke osoan zitzu bizian, zarata izugarria ateratzen:  
eserlekuen artetik igaro, espalaira igo, berak egur-zati batez  
egindako  aren gaintetik jauzi egin...



Bat-batean, zarata gutxitzen hasi da. Autoa gero eta motelago  
doa, eta erabat gelditu da, azkenean. Martin lasterka joan da  
autorantz. Jostailua tripaz gora jarri eta barrenak ateratzen  
hasi da. Badaki zer gertatu zaien. Bateria bukatu zaió.

Martin kexaka hasi da. Egun osoan eduki du etxeko  batean  
kargatzen, eta zertarako eta unetxo bat besterik ez ibiltzeko.

Parkeko bazter batean dago orain, gainerako neska-mutilak





jolasean nola ari diren begira; haiekin batera jolastu nahi luke, baina ez da hurbiltzera ausartzen.


Denbora aurrera doa, eta laster parketik alde egin behar izango dute. Eguna amaitzeko, burutazio bat izan du Tontxuk. Parkeko neska-mutiko guzti-guztien artean futbol-partidu bat antolatzea otu zajo.


“Zatoz, Martin. Zu ere jolas zaitzake, nahi baduzu. Inoiz ikusi zaitut eskolako jolastokian ibiltzen, eta oso bizkorra zara. Golen bat sartuko duzu, ziur”, esan dio Tontxuk.

 ak argitu zaizkio Martini. Lasterka joan da zelaira, taldeko gainerakoekin bat egitera.

“Ni, atezain”, esan du Anek.






“Eta ni izan naiteke arbitroa ”, esan du ilea azenarioak bezain gorria duen mutikoaren amak, patrikatik  bat ateratzeaz batera.

Hasi da partidua. Anek ateraino korrika egiten du  arekin, han Martini pasatzen dio eta honek pirueta bat egiten atera bota eta...gola egiten du. Bai joko bikaina!

Ondoren, Tontxuk indar handiz jaurti duen babia gelditzen du neska atezain batek. Dibertigarria izan da jolasa. Txilibitu-hotsa entzun dute haurrek. Amatxo arbitroak partiduaren bukaera adierazi du, eta jokalariek guztiek agurtzen dute elkar.

Parkea hutsik geratu da, baina bihar beste egun bat izango da. Egunduek nekagarria izan da. Eta berdinketa emaitza ona da, amaiera emateko.





**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO